



Kaixo denoi,

Adierazi denoi, 2014-2015 denboraldia **Irailak 8 astelehenean hasiko dela.**

Ordutegia bidaltzen dizuegu. Kontuan izan ordutegi hau malgua dela eta igerilarien mailan arabera igerilariak beste adineko taldeetan koka daitezkeela.

Izen emateko orria ere luzatzen dizuegu eta aparte taldearen arauak, zeuek eduki dezazuen.

Pare bat ohar:

2014-2015 denboraldian, txikienak, 2008an jaiotako neska mutilak hartuko ditugu.

2002eko igerilariak, 19:00tako ordutegira pasatzen dira, baina bi aukera dauzkate:

- 19:00etatik 21:00etara egunero entrenatzeko aukera. Konpetizioetara zuzendutako entrenamendua.

- 19:00etatik 20:00etara egunero entrenatzeko aukera. Hau, konpetizioetara joateko asmorik ez dutenentzat. Igeriketa landu eta kirola egiteko bakarrik datozenentzat.

Edozein zalantza baduzue, jarri lasai gurekin kontaktuan.

Besterik gabe, ondo izan.

Izarraitz Igeri Elkartea